


Bitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
115. alea, 2005eko
uztailearen 8an

Jon,
Bilbao modernoan
murgilduta





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



UGAITZ CATALAN EIZAGIRRE

Zine galduaren bila

Aulki eroxoak, berotasun goxoa; dena aldatu dugu. Lehen goxo eta erakargarri zena, hotz bihurtu dugu. Jada generazio batek ez daki zer den zinera joatea. Nik suerte pixka bat izan nuela esan dezaket, gogoratzen baitut domeka arrats goxo eta bero horiek, izara zuri horren aurrean zein istorio zoragarri agertuko zain. Urruti geratu dira oroitzapen hauek, txuri beltzeko irudiak bihurtu zaizkigu gure barneko zeluloide txiki horretan. Zinea jada desagertu egin dela esan dezakegu; Soralezarrok zoritxarrez hau bene-benetan esaten dugu, gurean ez baitago inongo zinerik, inork ulertu ezin dezakeen egoeran egotera bultzatuta, honek kulturari ekartzen dizkion penuria gutziekin.

Baina lasai egon gaitezke uda datorrenean, txuri beltzeko irudi horiek bueltatu egiten baitzaizkigu; baina txarrena da, koloretan eginiko remeik moderno horietakoa dela, 3 egunetan ahaztu egiten diren horietakoa, beste urtebete itxaron behar baitugu berriz herrian zineaz gozatzeko. Honekin ez dut esan nahi kanpogan ematen den zinea gaizki dagoenik, ezta gutxiago ere, baina ezin gara egoera honekin konformatu. Zeren, noski, non geratu dira iluntasuna, isiltasuna eta erosotasuna? Harago joango naiz: non daude zineko azken ilara ilun eta goxo horiek? Non ezagutuko dituzte bikoteek beraien albokoaren toki ezkutuenak?

Baina ez pentsatu zinearen egoera orokorrean ona denik; dena komertzializatuta baitauek, zineak herrietatik ateratzen ditugu makro zentru erraldoi bihurtzeko. Aldaketa honek parke rekreatibo bihurtu ditu zineak, gune bihozgabe eta diruxurgatzaileak. Hara iritsi bezain laster hasten da gure boltsiko hustuera: kontutan hartu kotxea hartu behar izan dugula bertara iristeko, bigarrenik garrantzitsuena dator, SARRERA, nola egon daiteke ain karu? Baina denok pasa behar izaten gara hortik eta ez dakit zer egin dezakegun, itxura denez inori ez bait zaio ardura. Harira itzuliz, sartu eta gero, han topatzen duguna ikaragarria da, Makro palomitak, maxi kokakolak... eta dena prezio ezin hobean, txoratzeak. Eta azkenik pelikula ikustera goaz, exerlekuan gaudenean, hara non agertzen den bapatean PPko iragarkia, aulkitik altxatu eta etxera joatekoa, baina ea nork duen balorea ordaindutakoa eta gero filma ikusi gabe etxera joateko. Hau dena pasa eta gero buruan deseo bakarra daukat: pelikulak ez asperraraztea, gaur egunean ez baitago kartelerari askoz gehiago eskatzerik.

Amaitzeko esan behar zinea ez dela pelikula bat ikustea bakarrik. Zinea sentsazioz beteriko esperientzia da; gure memorian momentu ahaztezinak grabatzeko aukera da. Zine gabe xarma galtzen ari gara baina lasai egon, beti geratuko zaigu eta Paris.

Telegrafak

Kaixo irakurle! **Stop** oportetarako planak egiten? **Stop** bertan gare barren onduen? **Stop** mendira buelta bat emon... **Stop** playara sarri xamar bisita... **Stop** inguruko jai-xetan dantzaldi batzuk egin... **Stop** danerako astixa izango da. **Stop** lasai! **Stop** oindio lan pixkat egin biherra dago baina... **Stop** laster oporrak! **Stop** aurten PSE eta PPko zinegotziak be lasaixago ibili ahalko dabe. **Stop** bihar daben moduan. **Stop** askatasunak danondako bihar dau. **Stop** nahikua hildako eta sufrimendu izan da. **Stop** larregitxo aukeran. **Stop** lagundu deigun danok aukeran. **Stop** aukera hau zapuztu ez dein. **Stop** gaiz aldatuta. **Stop** fibra optikuak be badauka beria! **Stop** Euskaltelek interes faltia ei dauka Plaentxiarako! **Stop** jo, jo! **Stop** ta gainera dirua eskatu! **Stop** hori hori! **Stop** eskatzia libre dala ta! **Stop** egixa esateko... **Stop** behin hasitta igual merkiao ipiniko genduke geuk! **Stop** bixkorrao bai behintzat! **Stop** bixen bittartian betiko 7 telebista katiekin... **Stop** Telefonicari lineakin... **Stop** internetera asto gainian. **Stop** eta gainera ondo pagauta. **Stop** ikusi egin bihar zer datorren berri. **Stop** eta bestela egingo dogu protesta haundin bat! **Stop** horren arira! **Stop** bizikleta martxia dago zapatuan. **Stop** hizkuntza eskubidien alde. **Stop** Euskaltelek euskeraz atendidu gaittazen... **Stop** ez da erreza izango. **Stop** homosexualen alde be egin da azkenian **Stop** eta ez da erreza izan! **Stop** jaixak erreza! **Stop** Udala eta Galtzagorriak batera. **Stop** ezkondu ez baina... **Stop** jai sano eta partehartzailien alde! **Stop** Marraz be badator poliki poliki... **Stop** toos Marraz! toos!... **Stop** MG!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5, behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Disainua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarrean ez du bere gain hartzen aldizkaniko esanen eta iritziaren erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



Erreportaia

ETak ekainaren 18an kaleratu zuen agirian PP eta PSEko hautesien kontra atentaturik ez zuela egingo adierazi zuen. Sorluzekeo Udalean talde hauetako bi ordezkari daude: Soledad del Bosque eta Francisco Javier Nuñez



Enkarna Arrizabalaga

Uztailaren 27an.

Zorionak eta ondo pasau !!
Etxeko guztien partez.

gutuna

Etxebizitza: eskubidea ala negozioa?

Etxebizitza eskuratzeko eskubidea gero eta zailagoa da. Eskubide izatetik inbertsio tresna izatera pasa da. Lehen etxebizitza erosteko 2 urteko soldata osoa behar bazen, gaur egun 30 urteko soldatak oso osorik behar dira gauza bera egiteko. Espekulazioaren bitartez prezioak etengabe handituz doaz. Gaur egun Plaentxian etxe batek 20tik-50 milloira balio ditu. Ez al da lotsagarria! Gure kontura negozio itzela bilatu dute: lurjabeek espekulatzeko, promotoreak aberasten, banketxeak maileguekin eta dministratioak bere aurrekontuetan inolako neurririk hartu gabe.

Eta alokairuaz hitzegin badogu, Plaentxian apenas dago etxerik alokairuan, ez dau inork alokatzerik nahi, eta daren gutxixak prezioa gutxigorabehera 40.000 peztakua da.

Plaentxian + - 100 bat etxebizitza egongo dira hutsik, batzuk ez dira egongo bizitzeko moduan baina beste batzuk bai. Eta non daude administrazioiko neurriak etxe hauen inguruan...? Nahiago dute espekulazioa bultzatzea herria etxe berriz josita. Eta etxe berri horiek erosi ezin dituan jentia zer? Ez al dauka eskubiderik?

Esango dabe bai hor datoz SACIAko etxiak, bai baina sozialak izango dira ez? Alokairu soziala bultzatuko al da? Sozialak eta babes ofizialekuak ez dira berdinak, sozialetan sartzeko baremoak txikiagoak dira). Herritarrak ez dakigu ezer eta uste dogu galdera honek erantzun biharko likela Udalak. Herritarrak jakin nahi dabe! Eta behin Etxebideko lista horretan ez bajatzu tokatzen? Ba hor konpon! Ondo ikusiko al zenukete hezkuntzan ikastetxerako plazak ere zozketa bidez banatzea edo eta osasungintza arloan horrelako jarrerak aurrera eramatea? Ezin direnak pribatura joan dirurik ez dutelako, hor konpon! Eta 600 euro irabazten hilean eta ezin dena lista horietan sartu? Non dago huentzat babesa? Etxebizitza arazo soziala da eta irtenbideak behar dira DENONTZAR. Erakunde publikoen ardura ez al da biztanleak babestea? Politika ausartagoak behar dira. Urrats koldartxoak egitea ez da nahikoa, eta merkatu eta negozio honen kontra jotzea zaila den arren noizbait hasi beharko da espekulazioa mugatzen eta benetako neurriak hartzen.

Etxebizitza duin baten aldeko plataforma

jaiotakoak

GARANE TRIFOL MACIEIRA

hildakoak

TOMASA LASKURAIN LARRAÑAGA

CECILIA MILAGROS LEGAZPIA

ELUSTONDO

herriko iragarkiak

Pisu bat salgai Soraluzen.

Interesatuek deitu!!

Telf.: 943 85 29 99

Batzokiko tabernarako kamarer@ behar da.

Telf.: 646 46 21 33



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!

lana

Ingurumen Teknikari bat
Zarauzko Udalean Erdi-mailako
Teknikari bat, Ingurumen Teknikaria,
kontratatzeko oposizio-lehiaketa.
Probak gaiztuz dituztenekin lan-pol-
tsa bat osatuko da aldi baterako pre-
miei erantzuteko. Ingeniari teknikoa,
Unibertsitateko diplomatua, Arkitekto
teknikoa, LH III edo baliokidea.
Telefonoa: 943 005100.

5 Udaltzain

Zarauzko Udalean 5 udaltzain lanpostu
betetzeko oposizio-lehiaketarako deial-
dia. 18 eta 32 urte bitartekoa izatea.
Baldintza fisikoak. Eskatzen da: Eskola
Graduatua edo Lanbide Heziketako 1.
maila edo baliokidea, Derrigorrezko 2.
hizkuntza-eskakizuna, B motako gida-
baimena. Telefonoa: 943 005100.

bekak

Kazetarientzako bekak 2006-2007
CEO Fundazioa; Fulbright.

Kazetaritzaren alorrean (prentsa, irra-
tia eta telebista) espezializatuta ego-
nik, AEBetako unibertsitate edo ikas-
tetxe espezializatu batean euren ikas-
ketak egin nahi dituzten gazteentzako
bekak. 1999aren eta 2005eko ekainar-
en artean lortutako goi-mailako titu-
luek. Hamarretik hamabi hiltabera
bitartean.

Telefonoa:

91 7027000 / 91 3191126

ARRANO
tabernia
"Giro euskalduna eta sanua"
ETORRI ETA GOZATU
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera
Telefonoa 75 24 09

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
SORALUZE
tf: 943752150
Faxa: 943752118

Zer irizten dotsazu?

Uda sasoia opor sasoia izaten da ikasle eta langile askorentzat. Soraluzetarrek, normalean, gure herria baino paraje turistikoagoak aukeratzen dituzte oporrek pasatzeko. Kuriositateak jota, kalera jo dugu aurten oporretarako jenteak ze plan daukan eta ze plan euki nahiko lukeen jakiteko.

Bazoiaz aurten inora oporretan? Zeintzuk dira zure opor idealak?



Nerea Uzin

25 urte, psikologoa

Astebete Valladolideko herri txiki batera juango naiz eta beste 10 egun Valentziara, aman herrira. Nere plan ideala Europan zihar bidaia bat egittia izango litzake, hilabeteo biajia autokarabana batekin. Mapia hartu eta egun bakoitzian pentsau nora juan bihar garan.



Jose Mari Mendia

58 urte langillia

Oporretarako plana? Tallarrak egindakuak. Julixuan 18xan Pekinera eta agostu erdi inguruan buelta. Gero Pirineuetara eskapada bat egingo dot, Jaka aldera. Oporrik onenak Alpietara juatia, mendixan ibili eta perretxiko batzuk batzia, han be egongo dira eta.



Aitor Morillo

21 urte, ikaslia

Oin dala gutxi egon naiz 5 egun Llanesen klasekuekin, eta beste 5 egun Peñiskolara juango naiz. Bestela Plazentzian. Oporrik onenak motxilia hartu eta ahal danik eta lekurik gehixen ezagutzia litzake. Ni India, Himalaya alde hortara juango nitzake.



Nagore Zabala

29 urte, administratiboa

Lehenengo Bilboko jaixetara juango naiz eta gero atzerrira, Egiptora seguruen. Neri Mejikora juatia gustauko jatan. Hotel on bat hartu, turismua egin, Mayen tenpluak ikusi, Chiapas aldia ezagutu eta gero relajatzera ondartzara: Playa del Carmenera adibidez.



Maria Pilar Juaristi

55 urte, etxekoandria

Gu familixa guztia Donostiara juango gara, urtero moduan. Opor idealak nerekako gizonakin lasai-lasai hotel batera juatia, dana eginda eukitzia. Nora? Bertan be ondo. Batzuk esaten dabe aspergarrixa dala hori, baina guk nola ez dakigun zer dan!



Jon Errazu

22 urte ikaslia

Pare bat aukera dakat oporretarako: bata furgoneta batekin Espainian zihar bidaiatzia eta bestia Conillerara juatia, Cadizera. Opor idealak nerekako izango ziran Egiptora juatia. Dirua dakatenian juango naiz



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21

20590 SORALUZE

Abiada murriztaile berriak

Udalak abiada murriztaile berriak jarri ditu Zeletako zubian. Aldaparen eraginez, autoak abiada haundian ibiltzen dira errepide tarte horretan eta arriskutsua da batez ere haurrentako, eskolara bidean harrapatzen ditu eta.



LUDETEKAKO LANPOSTUAK

Soraluzeko Udalak herriko Udal Ludotekan lanaldi partzialarekin aldi batez aritzeko bi lanpostu bete behar ditu.

Eskatzen dira:

- Prestakuntza: Gizarte eta Kultura Animazioko Goi Mailako Heziketa Zikloa, eta/edo Maisutza Diplomatura, eta/edo Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia Lizentziatura.
- Euskara: EGA edo baliokidea.

Kontuan hartuko dira:

- Aisialdi arloko prestakuntza.
- Lanpostuari lotutako zaletasun eta boluntarioritza.

Interesa daukaten pertsonak Soraluzeko Udaleko Erregistroan egin beharko dute beren eskaera, eskaerari Curriculum vitae zehatza eta prestakuntza eta euskara tituluen fotokopia erantsiz eta "Ludoteka" erreferentzia adieraziz. Eskaerak aurkezteko azken eguna 2005eko uztailaren 12a da. Aurrehautetsitako pertsonekin 15 eguneko epean jarriko da harremanetan Udala.

Soraluzeko Udala

PEDALKADA

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BORROKATUZ

UZTAILAK 9
Bizikleta
Martxa


10:00 Soraluze (Gila zubian)
10:00 Eibar (Untzaga)

Debara
eta ondoren...

Mural berriztapena
Debako Kaian

12:00

Anima zaitez euskararen
aldeko pedalkada ematera!!!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ 

Pedalkada hizkuntza eskubideen alde

Uztailaren 9an, zapatuan egingo da hizkuntza eskubideen aldeko bizikleta martxa. Soraluzen (Gila zubian) atera eta Debaraino joango da martxa. Bailarako Euskal Herrian Euskaraz-eko taldeen artean antolatu dute eta Euskararen aldeko Pedalkada izena eman diote. Deban, kaiako horman dagoen EHERen murala berri-tuko dute.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

Udala gay eta lesbianen eskubideen alde



Artxiboko irudia

Udal Batzarrak joan den asteazkenean egindako ohiko saioan. 3 mozio bozkatu. ziren. Lehenengoan PSE-EEko Soledad del Bosquek "Lesbiana, gay eta bisexualen eskubideen berdintasun osoa"ri buruzko mozioa aurkeztu zuen. Mozioan, Soraluzeko Udala, herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen eskubide berdintasunaren alde lan egitera konprometitzeko eskatzen zen, horretarako homofobia eta transfobiaren aurkako sentsibilizazio ekintzak, neurri hezitzaileak, integrazio neurria eta gay lesbiana, transexual eta bisexualentzako aholku eta orientazio zerbitzuak bultzatzeko eskatzen zen. Mozioa aho batez onartu zen. Bigarren mozioa Alderdi Popularreko Jose Javier Nuñezek aurkeztu zuen. Bertan inmigrantearen gizarteratze prozesuan justuagoak, solidarioagoak eta eraginkorrakoak izateko ezinbestekotzat jotzen du Alderdi Popularrak Inmigrazioari buruzko

Udal Plana gauzatzea. Lau puntu jasotzen zituen mozioak. Lehenengo biak, etorkinen integrazioa errezteko laguntzak emateari zegokiona Udaleko talde guztiek onartu zuten aho batez. 3. eta 4. puntuak, Udalak aurkeztu beharreko Inmigrazioari Buruzko Udal Planari erreferentzia egiten ziona ez zuten onartu EA, EAJ eta SAH taldeetako ordezkariak. PPK eta PSEk aldeko botoa eman zuten. Hirugarren mozioa ere alderdi popularreko Jose Javier Nuñezek aurkeztu zuen. Mozioan, Mendebaldeko Sahararen okupazioa, herri saharauiaaren kontra erabilitako errepresioa, agintari marokoarrek komunikabideei jartzen dizkietan trabak eta kontrol ikaragarriak salatze eskatzen zen, besteak beste. SAHk ez beste guztiek baiezko botoa eman zuten. Ezker Abertzaleko ordezkariak abestenitu egin ziren Alderdi Popularreko ordezkariaren jarrera "hipokrita" kritikatu.

تذکرہ تہذیبیہ

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

تہذیبیہ تہذیبیہ

 **etxebarri**[®]
etxehun

Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teleline.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Mesfidati ETAre komunikatuaren aurrean

ETAk ekainaren 18an kaleratu zuen agirian PP eta PSEko hautetsien kontra atentaturik ez zuela egingo adierazi zuen. Soralezeko Udalean talde hauetako bi ordezkari daude: Soledad del Bosque Soralezetarra (PSE) eta Francisco Javier Nuñez eibartarra (PP). Bizkarzainekin bizitzen hasi zirenean euren bizitza nola aldatu zen azaldu digute eta baita ETAre komunikatuak eurengan izan duen eragina ere.

Francisco Javier Nuñez (PPko zinegotzia)



ELKARRIZKETA



**Ze urtetan sartu zinen politikan?
Zergatik?**

1995ean, 23 urte nituenean. Gregorio Ordóñez hil zuten egunean hartu nuen erabakia. Berriak eragin handia izan zuen nigan.

Nola aldatu zen zure bizitza bizkarzainekin hasi zirenean?

Aldaketa bortitza izan zen. Alderdi Popularreko zinegotzi kargua hartu nuenean banekien dena korapilatuko zela baina ez nuen pentsatzen hain gogorra izango zenik. Niri, beste edozein gazteri bezala, kalera irtetzea eta lagunekin ibiltzea gustatzen zitzaidan. Bapatean, bi persona berrirekin bizitzen hasi behar izan nitzen. Independentzia eta intimitate guztiak galdu nituen; ia imaginaezina da.

Familiarekin eta lagunekin zenuen harremanetan zer eragin izan zuen?

Familiakoek ez dute sekula erabat onartu hartu nuen erabakia. Ia inposatu egin behar izan diet nire erabakia errespetatu dezaten. Ezin dute ulertu. Lagun artean beste bi pertsona eramateak denengan du eragina. Azkenean banandu egiten zara ez duzulako inor inkomodatu nahi. Autista txiki bat bihurtzen zara. Horrela bizi behar duzu hori

baita zuk aukeratu duzuna.

Zer galdu duzu eta zer irabazi duzu?

Nire askatasuna galdu dut. Mutil normal bat izatetik ia-ia nire mundu partikularrean bizitzera pasa nintzen. Irabazi? Nik pertsonalki ezertxo ere ez. Hala ere, gure ideiak defendatzean gure ideiak

<< ETA desagertzen ez den bitartean norbaitek guri bizkarzainak kentzea erabakitzen badu, ondo-ondo pentsa dezala alde zurretik >>

bizirik mantentzea lortu dut, jentek hor gaudela jakin dezala. Niri botoa eman zidaten 282 pertsonen botoak irabazi genituen lehenengo botazioetan, eta 287 pertsonenak bigarreanean.

Ez al duzu sekula pentsatu uzterik?

Sekula ez. Gure jeitsialdiak izaten ditugu, desanimoak, baina egiten duzuna sinisten baduzu ez duzu hortan pentsatzen. Lehenengo legegaldiaren bukaeran pasa zitzaidan burutik uztea baina jarraitzea

erabaki nuen. Espero dut Soralezeko urte askoan jarraitzea.

Zer eman diezu plazentziatarrei eta zer jaso duzu beraiengandik?

Jaso, norbaitek demagogiatzat hartzen badu ere, asko. 5 urte hauetan niri jente gutxi hurbildu zait baina etorri zaizkidanen artean lagun onak egin ditut. Eman? Hori herritarrek epaituko dute. Ni kanpoan bizi naiz eta nirea ez da beraz Soleren kasua. Soralezeko egokiena zena eman dut. Aukera bat eman diet herritarrei, gure proposamenekin bat egiteko aukera.

Nola jaso zenuen ETAre azken komunikatua?

Indiferentziaz jaso nuen. Plan-teatu ere ez dut egiten komunikatua gizatasunik gabea iruditzen baitzait. Nola erabaki dezake norbaitek nor hil behar den eta nor ez? Ez diot garrantzia politikorik ematen eta espero dut gobernatzen gaituenak ere horrelakorik ez egitea. ETA desagertzen ez den bitartean norbaitek guri bizkarzainak kentzea erabakitzen badu, ondo-ondo pentsa dezala alde zurretik. "Soluzioaren parte ez bazara arazoaren parte zara" balio al du esaldi horrek euskal gatazkarako?

Nik ez dut nere burura arazoaren parte ikusten eta ez dut uste esaldi horrek balio duenik. Hemen dagoen arazo bakarra ETA da, mehatxatu eta erahiltzen duen talde bat; eurak dira arazo bakarra.

Zer deseo duzu etorkizunerako?

Danendako bakea eta askatasuna nahi dut. ETARI desagertzeko eskatuko nioke; laga diezaiola gizarteari Udaletxeen bitartez Gipuzkoaren, Euskal Herriaren eta Espainiaren geroa erabakitzen. Orduan bakarrik izango da herri aske eta batu bat.

Soledad del Bosque (PSEko zinegotzia)



ELKARRIZKETA



Noiztik bizi zara bizkarzainen babespean?

2001eko martxotik. 2000. urtean paktu antiterrorista egin zen eta orduan ETAk indiskriminatuki PP edo PSEko edozein hautetsiren kontra egiteko erabakia hartu zuen. Askok ez genuen nahi baina alderdiak bizkarzainekin bizitzera behartu gintuen.

<< ETak armak uzten baditu ez dago arazorik. Estatutu berria? Konpetentzia gehiago? Denborak aldatuz doaz eta dena etor daiteke. >>

Nola aldatu zen zure bizimodua?

Goitik behera. Ezin duzu nahi duzunean nahi duzun lekura joan. Norbaitekin geratuez gero, hurrengo egunean ezin zaitezke berarekin ordu berean geratu. Jenteak ez daki ezin naizela etxera oinez igo, autoan igo behar dudala. Hasieran ez nuen inor konprometidu nahi. Bakardadea eta hutsune handia sentidu nituen

Eta gainontzeko herritarrekin zenuen harremanetan?

Nik batzuri galdetuko nieke ea ni zertan aldatu nintzen, bizkarzaingabe bizi izatetik bizkarzainekin bizi izatera. Ni ez nintzen aldatu beraiekin, beraien jarrera nirekiko bai ordea..

Ez al zenuen pentsatu dena uzterik?

Sekula ez. Etxean esaten zidaten ia jarraitzeak merezi ote zuen. Bai, merezi du. Kargua utziko dut nere lana amaitutzat jotzen dudanean; sekula ez mehatxuengatik.

Zure bizitza arriskuan ikusi al duzu inoiz?

Pentsamendu horrekin ezin zara bizi, bazterrean uzten duzu. Ez duzu pentsatu nahi zu izan zaitezkeenik edo ez duzu sinistu nahi, zuzenean zure izena agertzen den arte. Nire izena herriko kaleetan pintatu zuten eta Regina atxilotu zutenean ere prentsan azaldu zen.

Asko aldatu al da Sole urte hauetan?

Fatxada izango da, baiña agresiboagoa naiz. Txikienarekin salto egiten dut; lehen ixildu egiten nintzen, orain ez. Beldur gehiago daukat, bildurrez bizitzen hasten baitzara. Kontraesana dirudi baina bizkarzaingabe nabilenean ez nuen beldurrik; bizkarzainekin hasi nintzenean hasi nintzen bildurtzen; sensibleagoa ere banaiz, denak lehen baino min gehiago egiten dit.

Zer galdu duzu eta zer irabazi?

Askatasuna galdu dut. Etxean, seme-alabek asko sufritu dute eta hori oso gogorra izan da neretako. Lagunik ez dut galdu, galdu ditudanak ez ziren lagunak eta. Irabazi? Batez ere nire buruari zor nion errespetoa; besteren batena ere bai. Jentea hobeto ezagutzen

ikasi dut, lagun bat gutxien espero duzun lekuan topa dezakezula. Bestalde, nirekin zerikusirik ez zuen jentearekin bizi izaten ere ikasi dut.

Nola jaso zenuen ETaren komunikatua?

Telefonoz hotsegin zidaten. Ezin izan nuen erreakzionatu, kontua nirekin zihoanik ere ez zirudien eta. Gehiegi ez nuen sinetsi. Garrantzia handia emango nioke komunikatuari egiazkoa izango balitz. Oraindik ez dakigu, denborak esango du. Danok libre izan arte, ez da egiazkoa izango. Oso gogorra da eta ezin dut ulertu: "orain zuek ez zaituztegu hilgo" nork erabakitzen du hori eta zein eskubiderekin? Nork erabakitzen du hil behar dudanez edo bizi behar dudanez?

Nola ixten dira zauriak? Parkamena eskatzea beharrezkoa al da?

Alderdikide asko matxakatuta daude eta horiek ez dira psikologikoki inoiz errekueratuko. Denborak ixten omen ditu zauriak. Borondate on pixkat egon beharko da bi aldeen partetik. Niri behintzat ez dit inork parkamenik eskatu behar, baina nik nire izenean hitzegiten dut; ez zait etxean inor falta. Gauza batzuk ezingo dira ahaztu.

<< Jentea hobeto ezagutzen ikasi dut, lagun bat gutxien espero duzun lekuan topa dezakezula >>

"Soluzioaren parte ez bazara arazoren parte zara" balio al du esaldi honek euskal gatazkarako?

Ez zait iruditzen. ETak armak uzten baditu ez dago arazorik. Estatutu berria? Konpetentzia gehiago? Denborak aldatuz doaz eta dena etor daiteke. Gatazka ETA eta bere pistolak dira. Negoziatu behar da baiña bitartean ez nazazu pistolarekin apuntatu.

Zer deseo duzu etorkizunerako?

ETak armak uztea eta akordio bat lortzea. Nik hau dena amaitzea nahi dut.

Uztailaren 16an RKzulo festibala

Jaien aurreko zapatuan izango da aurtengo Rkzulo musika festibala. Aurten, Galtzagorri jai batzordearekin batera, egun osoko egitaraua antolatuko dute elkarlanean. Eguerdian hasiko da jai frontoian egingo den herri bazkariarekin eta iluntze aldera, herriko musikarien emanaldiak izango dira ikusgai frontoian bertan jarriko den tablautuan. Aurten 10 taldek hartuko dute parte festibalean eta jaiari laguntzeko txosna ere jarriko dute ikastola zaharreko arkupeetan.

EGITARAUA

19:30etan:

- HIRU TRIKU
- CACHAÇA EM ITAPOA
- BERTSIOAK: *radiohead, Juan Luis Guerra, Amaral, The Pink Panther, Fadoak, Brassens...*

23:00etan:

- GRIFO AZPIXAN
- MAMORROS BAND
- ANTOINNE AVEC POMMES DE TERRE
- KALAÑA
- KE OS JODAN
- MINGAIÑA EXPLOSION
- PSIKODELIA ONGAL
- A.E.K.



Argazkia: Juanma Berrueta

Santiago-Santa Ana Jaiak 5 egunetan

J oan zen urteko egitaraua gaindituz Santiago-Santa Ana Jaietan inoizko egitaraurik zabalena izango da aurten. Udalak, Galtzagorri Jai Batzordeak, Gaztetxeak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak ekitaldi ugari antolatuko dituzte. Aipatzekoa da, jaien irekiera ofiziala uztailaren 23an izango bada ere (12:00etan botako txupinazoa Udaltxeko balkoitik) Galtzagorriek uztailaren 22an (*barixakua*) hasiko dituztela jaiak. "*Barixakua aprobetxatu nahixan eta jaiak berotze aldera, jaietako pertsonaia kaleratuko dogu txarangarekin, eta musika kontzertu bat be izango da frontoian, Nekin, Inoren ero Ni eta Zein taldiekin*".

KARTEL IRABAZLEA

Uztailaren lean egin zen jaietako kartel lehiaketako sari banaketa. Helduen mailan, Belen Mendikutek irabazi zuen (*argazkikoa*). Gainontzeko mailatan hauek izan ziren sarituak: Marta Otero, Sara Hernando, Leire Garcia, Garazi Arizaga eta Katia Gustino.



Kontrargiren argazki erakusketa



Uztailaren 5a eta 22a bitartean argazki erakusketa berri bat izango da ikusgai kiroldegiko erakusketa gelan. Kontrargikoeak 2005. urtean etaratako argazkien bildumatxo bat prestatu dute. Erakusketa gela 19:00etatik 20:30etara egongo da zabalik astegunetan eta 12:00etatik 13:30etara larunbatetan.

Gaztetxoen antzerkia estazioan



Ekainaren 30ean Soralezeko gaztetxo talde batek antzerkia eskeini zuen Estazioko parkean. Bertaratu zirenek Aurkezlea, Deabrua, Zorroa, Sorgina, India eta beste pertsonaia batzuk antzezten ikusi ahal izan zituzten.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



KM Desing

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillage, nº 5


Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Banda zabal

duina noizko?



Debabarreneko herririk gehientsuenetan (*Soraluze, Mutriku eta Mallabin ezik*) ezarri du dagoeneko Euskaltelek Fibra Optikoa eta horren bidez eskeintzen du telefonia, internet eta telebista kate digitalaren zerbitzua. Soraluzen ordea, oraindik ez dago argi noiz helduko den, ezta helduko den ere. Orainartean Udalak Euskaltelekin egindako bileretan ez du lortu Euskaltelen konpromiso zehatzik.

" 2003an 2005ean hasiko zirela agindu ziguten. Orain, 2007rako esan digute baina Udala ez dago ados atzerapenarekin "

Udala

Euskaltelen "interes falta"

Aspaldi (*orain 5-6 urte*) hasi zen Euskaltel Debabarrenean fibra optikoa ezartzen. Ermua eta Mendaro izan ziren lehenak eta dagoeneko ezarrita dago. Elgoibar, Deba eta Eibarren etorri dira gero eta herri hauetan oso aurreratuta daude lanak. Soraluzen, Mutrikun eta Mallabian ordea ez da ezer egin. Debegesako arduradun nagusiak adierazi digunez (*Udalarekin batera Debegesak ere negoziatzen dihardu*), instalaziorako dauden zailtasunak dira Euskaltelen "interes faltaren" arrazoiak. Gogoratu

Datuak

Euskaltel gabe (hilean)

Telefono haria bakarrik (<i>Telefonica</i>)8€ (26€ 3hil.)
Internet Banda Zabala (<i>Euskaltel</i>)29€
Telebista kateak (<i>Canal Digital</i>)30€

Euskaltelekin beste herrietan (hilean)

Telefono haria + Estatu barruko deiak	
Banda Zabala (<i>tarifa laurik gabe</i>) eta	
17 Telebista kate14€

behar da ordea herrian dagoeneko fibra optikoa sartzeko tuboak jarrita dituela Udalak. Beraz, autopistako azpiegituratik (*dagoeneko guztiz amaituta dagoena*) barrena Maltzagatik herrira ekarri eta tubo horietan sartzea litzateke Euskaltelek egin beharreko lana.

Atzerapena eta baldintza berriak

Udalak jakinarazi digunez, Euskaltelek aurreko legealdian hartu zuen 2005rako Soraluzen fibra optikoa ezartzeko konpromisoa. Euskaltelekin egindako azken bileran ordea, honek lanak 2007an hasiko liratekeela eta beharbada Udalak lanek zati bat ordaindu beharko lukeela adierazi zion. Alkateak jakinarazi digunez, Udalak atzerapen eta baldintza berri hauek bere ezadostasun osoa adierazi dio. Euskaltelek bere aldetik, azterketa berri bat egingo duela erantzun du. Bitartean, agindutako bileraren zai jarraitzen du Udalak.

ARMENDIA

JATETXEA



Ezoi Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

JABIER ALBERDI

MARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA



KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Gaur azken laurdenetako partiduak

Asier eta Iñakiren omenezko IV. pelota txapelketa iritsi da dagoeneko azken laurdenera. Ostiral honetan 4 partiduetatik 3 jokatuko dira kiroldegian, gaueko 22:00etan.

Hauek izango dira partiduak:

Suar Aizpuru - Joseba Exposito / Asier Fernandez - Xabier Rodrigex / Zigor Orbe - Zuhaitz Ostolaza / Unai Larreategi - Andoni Calles / Xabier Kiru - Koldo Heriz / Marko Raskon - Joseba Gallastegi.



URPEKARITZA BATAIOA

Joan dan ekainaren erdialdera Soralezeko Bigarren Hezkuntzako Institutoko ikasle hauek Getarian izan ziren urpekaritza bataioa hartzen. Aurreko asteetan Soralezeko igerilekuan praktikak egin zituzten urpean ibiltzen ikasteko eta azkenean iritsi zitzaizkien Kantauri itsasoan bataiatzeko eguna.

EMAITZAK

FUTBITO TXAPELKETAN

Final laurdenak jokatzen ari dira.
Asador Guri-guri, Gaztetxe 9 - 6
Artifices, Supertorpedos 1 - 1

Asteburuan beste bi partiduak:

Los Cracs, Hola Dok (*ostiralian 8etan*)
Ballesta T, Gamusinos (*zapatuan 5etan*)

ESKU PILOTAN

Iñaki jauregi Añorgan erdi finaletan:

Muguruza, Jauregi 22 - 20
Huici, Argote

Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketa azken laurdenetako partiduak

Ostiral honetan, hilak 8, gaueko 22etan kiroldegian:

- Suar Aizpuru - Joseba Exposito / Asier Fernandez - Xabier Rodrigex

- Zigor Orbe - Zuhaitz Ostolaza / Unai Larreategi - Andoni Calles

- Xabier Kiru - Koldo Heriz / Marko Raskon - Joseba Gallastegi

Hurrengo astean zehar:

- Erlei Txurruka - Aitor Fernandez / Jon Heriz - Ander Elizburu

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Jon Gabilondo

Jon Gabilondo (26 urte) irakasle da lanbidez. Magisteritza ikasketak egin bazituen ere, beti izan du lotura berezia artearekin. Azken 5 urteetan Bilbon bizi da, arte-moda- dantza eta beste hainbat proiektu modernotan parte hartuz.

Zer moduz bizi zara Bilbon?

Beste era batera bizitzeko aukeria emon dosta, libriago edo. Egixa da bebai, hiri haundixetan azkenian leku berdinetan mugitzen garala. Ni alde zaharrian bizi naiz eta azkenian neretzako Plaentxi txiki- xa bilakatu da.

Jende asko agurtzen dot kaletik eta jende askok dauka nere berri.

Ze mobida desberdin dago Bilbon?

Bilbon modida asko dago, gustuen edota interesen arabera. Gabeko girua musikiak desberdintzen dau. Alde zaharrean adibidez "ambiente" leku asko dagoz, leku nahiko "askeak" dirala esango neuke. Gay komunitatea bertan dago zabal- duen. Hala ta be Bilbo handia nahiko askea da, gaur egun... guz- tia nahastuta daguala uste dot. Inon ez da ezer demostratu ezta ezkutatu behar, horrelakoa da Bilbao.

"Inon ez da ezer demostra- tu ezta ezkutatu behar, horrelakoa da Bilbao"

Zuen mobida zein da?

Berez, nere edo gure mobidak ez dauka etiketa berezirik, petardeoa edo mobida modernoa ez bada behintzat baina esango neuke honez gero ya dana post-modernoa dala.

Noiztik dakazu artearekiko zaletasuna?

Marraztia beti gustau izan jata. Gero, lagunen bittartez beti izan dot aukeria Arteakin lotutako gauzak egitteko. Ainara Garcia

Bertso Begiz

*Egunen baten pentsatu gendun
Bilbo aldera joatea,
hango aukera, hango mobida,
hango nahaste borrastea.
Moda, artea, musika ona
eta modernitatea,
orain badakit lotuta doaz
artista eta artea.*

Neko

Doinua: Gaztea zer da...



Jon Gabilondo

artista elgoibartarraren proiektu askotan hartu dot parte.

Ze beste saltsatan ibili zara sartuta?

Domenicas Colazionne proiektuan, 3 gosari internacional desberdin prestau genduzen, jentia domeka goizetan biltzeko asmuakin. Askontzat domekia da lasai- xen gosaldu leiken eguna eta horregaitik egin genduan proiektua. Emancipator Bubble proiektuan be parte hartu neban nere imagina "puntxeta"z mozorrotu eta produktu baten komertzializaziño kanpañan. Modorra (www.modorra.org), moda diseñatzaile berrien lehenengo ediziñuan be antola-

kuntza taldian egon nitzan. Moda, artea eta beste kontu honek alde batera lagata, lagun batzukin euren abestixen koruak egitten ibili naiz urte honetan. Taldian izena Felix Daniel + Lourdes Madow da. Abenduan Felixek dis- kua etarako dau eta ordurako aur- kezpena prestatzen gabiz.

Etokizunerako proiekturik?

Inoiz ez dittut gauzak oso garbi izan... hezkuntzan jarraituko dot lanian eta lanetik kanpo aukera daukaten guztietan aurrian jar- tzen jatana egingo dot. Gauza guz- tietara zabalik nago...

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Juan Mari

Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Argazki zaharra

San Roke Txiki eguna

Argazkian ageri diren gazteak San Roke Txiki eguna ospatzen ari dira Plaza Zaharrean, 1960. urtean gutxi-gorabehera. Aurten ere izango da aukerarik, abuztuaren 17an, zezenak ikusi eta umore onean eguna pasatzeko. Argazkian ageri direnak hauek dira:

Goian ezkerretik eskumara (*soinujoleekin eta alai*): Javier Sanz, Jesus Ansola, Jose Antonio Garitano, Santiago Fernández, Fernando Agirre, Soñujoliak(?) eta Luis Heriz. Behian, apaizarekin: Juan Cruz Juaristi, Luis Alberdi, Juan Cruz Lamariano, Vicente Azkona (*apaiza*), Manolo Larrañaga, Jesus Txurruka, Jose Ramon Aizpiri eta Jose Ignacio Artolazabal.



Iturria: Fernando Agirre

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Aurreko alean...



Erantzuna...:
elizako lehioa kanpandorrean

...eta irabazlea:

Maria L. Gantxegi

Limpiezas MEN



Era guztietako garbiketak

Bulegoak - Komunitateak

Atariak - Garajeak

M. Carmen Alonso 690792816

Telefonoa 943753079 - 20590 Soraluze



SALAZAR

Altzariak


Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 - 20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

ZINEA KALEAN

PLAZA ZAHARREAN



La Búsqueda
ostiralean, 22: 30




Los chicos del coro
larunbatean, 22: 30

Ocean 's twelve
ostiralean, 22: 30



telefonoa: 943 75 0030




badator!!
ii MARRAZ

18 sari ikusgarri !!

18 sari mundialen zozketa
Soraluzeko jaiak 1€
Galtzagorri jai batzordea

Afarixak
Arrain eta haragi sortak
Nekazalturismo eta talasoterapia asteburuak
Ardoak

 Hautserriko
Galtzagorriak
Jai Batzordea

zozketa uzatilaren 26an gorrigaineko kontzertuen atsedenaldian egingo da. zenbaki sarituen informazioa: 687393323, 605706087

Eskerrak laguntza eman diguzuen babesle guztioi !!

